



DANI BLANCO

Fermin Erbiti

KAZETARIA ♦

Porrotaren alde

PSIKOLOGO ETA PEDAGOGO guztiak bat datoz: porrota bizitza honetan gauza segurua denez, galtzen ikastea ahalik eta azkarren gainditu beharreko irakasgaia da. Galtzen ikasi, hortik etekinik ere atera dezakegula ahantzi gabe, porrotaren alde onari erreparatuz. Izan ere, gauza jakina da porrota ikasbide paregabea izan daitekeela, oso lagungarria etorkizunerako. Bizitzaren ibilbidean bosturteko batzuk eginak dituen edonork badaki, ongi jakin ere, porrotei zor dizkiegula ikasi ditugun lezio hoberenak. Eta horren alde onez hausnarketa egiten hasiz gero, ezin aipatu gabe utzi galtzailearen erakargarritasuna, bereziki zineman edo literaturan. Bitxia da: horretan, galtzaile irabazle.

Barcinak-eta, beraz, bazuten kontsolamendurik. Horri muzin eginez, ordea, galtzen ez dakien haur ergelaren papera jokatu nahiago izan dute: gola sartzen badidate, baloia hartu eta espantuka hasiko naiz, aurkaria ahalik eta gehien kakazten dudana bitartean. Porrotak eskatzen duen autokritikatik, noski, arrastorik ez.

Kontua da protagonistak adinez nagusi izateaz gain, gutxieneko erantzukizun politikoa erakutsi behar lukeela. Ez da, beraz, batere eredugarria amo-

rrazioari ezin eutsiz Madrila joan (Madrila, beti Madrila!) eta han Nafarroa Alemania naziarekin parekatzea. Beste guztiak baino askoz *nafarrrrrrrzale* omen zen hautagaiak ere hobe apokalipsi ekonomikorik iragarriko ez balu, helburua ez bada Nafarroa bera ahalik eta gehien kaltetzea.

UPNk deabruzat duen EH Bilduren erreakzioa eredu har zezakeen, askoz txukunagoa izan baita. "Herritarrengandik urrundu gara. Umiltasun handiagoa behar dugu". Horixe esan zuen Hasier Arraizek Gipuzkoako emaitzak ezagututa

UPNk deabruzat duen EH Bilduren erreakzioa eredu har zezakeen, askoz txukunagoa izan baita. "Herritarrengandik urrundu gara. Umiltasun handiagoa behar dugu". Horixe esan zuen Hasier Arraizek Gipuzkoako emaitzak ezagututa. Esaldia azpimarratu beharrekoa iruditzen zait, irabazlearen bekatu nagusiak ederki laburbiltzen dituelako: herritarrengandik urruntzea eta harrokeriaz joketzea.

Galtzen hain esperientzia luzea duten nafar agintari berriek erronka asko dituzte. Aurrekoen jokamoldea ez da eredu txarra, kontrakoan tematzeko: lubaki gutxiago eta zubi gehiago; botoa eman ez dietenak ere kontuan hartu; diru publikoa gardenago eta eraginkorrago kudeatu...

Eta, faborez, apal joka dezatela. Izan ere, politikaren ofizio korapilatsuan espanturik gabe galtzen eta irabazten dakien jende apala behar dugu. Aldatu beharrekoen zerrenda luzean, hori ere ez ahantzi! ■

XDZ



Joanes Etxebarria

♦

KAZETARIA

Mitologia, zertarako?

ATHARRATZEN laster irekiko dute euskal mitologiaren etxea. Zuzen errateko, turismo bulego berri bat irekiko dute eta etxearen gaineko parte euskal mitologiaren gunea izanen da. Lau artista gaztek osatu Kakots kolektiboa da edukiaz arduratu, Claude Labat ikerlari ezagunaren laguntzarekin. Erran dezadan, gauzak argi uzteko, anaia eta beste hiru lagun direla gazte horiek. Parametro hori kontuan harturik, nahi den bezala har daiteke ondoko ohar hau: edukian eta forman, gune horren zentzuaz konbentzitu naiz, egin dituzten testu, marrazki, bideo eta altzari batzuk

ikusi ditudalako. Eta besterik gabe, haiengan konfiantza dudalako.

Baina gune horren erabilpenak gehiago kezkatzen nau. Turismoari norabide berria eman nahi diotela entzuten da azkenaldian, baina beldur naiz interes ekonomikoek baizik ez dituztela aldaketak gidatuko. Mantendu daitekeena datu hau da: gaur egun arte, bisitari kopurutik ehuneko gutxi baizik ez baitira hego Euskal Herriko bisitariak, turismo bulegoak indar guti —edo batere— egin du arrea-anaia euskaldunak erakartzeko. Agian, euskal mitologiaren etxea amu bilakatuko da. ■